



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko apirilaren 19a

46. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—“Mélidako Udalaren Territorio Visión programa, erabilera anitzeko eraikinaren kontratua eta erronka solidarioa hitzarmena”ri buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

“Mélidako Udalaren Territorio Visón programa, erabilera anitzeko eraikinaren kontratua eta erronka solidarioa hitzarmena”ri buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 29an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak “Mélidako Udalaren Territorio Visón programa, erabilera anitzeko eraikinaren kontratua eta erronka solidarioa hitzarmena”ri buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

“Mélidako Udalaren Territorio Visón programa, erabilera anitzeko eraikinaren kontratua eta erronka solidarioa hitzarmena”ri buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
 - II. Melidako Udala (3. or.).
 - III. Helburuak eta norainokoa (3. or.).
 - IV. Iritzia (4. or.).
 - IV.1. Melidako Udalak legezketasuna betetzeari buruzko iritzia (4. or.).
 - V. Konklusioak eta gomendioak (5. or.).
 - V.1. Territorio Visón programa (5. or.).
 - V.2. Erabilera anitzeko eraikinaren kontratua (5. or.).
 - V.3. Diario de Navarra Fundazioarekiko Erronka Solidarioa hitzarmena (6. or.).
- Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (7. or.).
- Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (7. or.).

I. SARRERA

2019ko abuztuaren amaiera aldean, Melidako Udalak, Osoko Bilkuran onetsitakoari jarraikiz, fiskalizazio-txostena egiteko eskaria erregistratu zuen Kontuen Ganberan.

Zehazki, eskarian eskatzen zen honako alderdi hauek aztertzeko:

- Territorio Visión programaren kudeaketa ekonomikoa.
- Erabilera anitzeko eraikinaren kontratazioa.
- Diario de Navarra Fundazioarekiko kontratu-harremana (hemendik aitzin, Fundazioa): Erronka Solidarioa.

Azterlan hori Kontuen Ganberak 2020. urterako onartu zuen fiskalizazioko urteko programan sartu zen, eta legelari batek eta auditore batek osatutako taldeak egin du, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin, 2021eko martxoan.

Txostenak bost epigrafe dauzka, sarrera hau barne; bigarrenak, udalari buruzko datu nagusiak biltzen ditu; hirugarrenean, fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa identifikatzen dira; laugarrenak, aztertu diren espedienteetan legezkotasuna bete ote den esaten da, eta bosgarrenean, berriz, konklusioak eta gomendioak azaltzen dira.

Jarduketa horren emaitzak Melidako Udaleko alkateari eta alkate ohiari jakinarazi zitzaizkien, egokitzat jotzen zituzten alegazioak aurkezituzten, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Emandako epean, Melidako Udaleko alkate ohiak aurkeztu ditu alegazioak.

Udaleko langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. MELIDAKO UDALA

Mélida Tuterako merindadean dagoen udal bat da, 2020ko urtarrilaren 1ean zuzenbideko 733 biztanle zituena eta 26,10 km²-ko azalera duena.

Udal antolamendua Osoko Bilkurak (ordezkaritza-organo gorena) eta Alkatetzak osatzen dute.

Udala Mairagako Mankomunitateko kidea da, eta haren bidez kudeatzen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak eta hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendurako zerbitzuak. Nafarroako Erdialdeko Kirol, Gizarte eta Kultur Zerbitzuen Mankomunitateko eta Zarrakazteluko Oinarriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko kidea ere bada. Azken horri 17.666 euro ordaindu dizkio 2019an, eta ez da jasota ageri gainerako mankomunitateetako gasturik.

Udalari aplikatzeko zaion arau-esparrua honako hauek osatzen dute, funtsean: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea; Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea.; Toki Araubidearen Oinarriak ezartzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea; Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 38/2013 Legea eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2013 Lege Orokorra, bai eta araudi sektorial indarduna ere.

III. HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Lan honen helburua da, jasotako eskaria kontuan hartuta, legezkotasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioa egitea, iritzi bat ematearren kontratazioak eta aztertutako programen kudeaketa ekonomikoa aplikatu beharreko araudiaren arabekoak izan ote diren alderdirik nagusienetan.

Lana egiteko, Udalaren Osoko Bilkurak egindako eskaria abiarazi zuten hiru espedienteak aztertu ditugu; honako hauek, zehazki:

- Life+ Territorio Visión programaren espedientea.
- Melidako erabilera anitzeko eraikinaren obren kontratazio-espedientea.
- Erronka Solidarioa izeneko kirol-ekitaldia sustatze aldera Fundazioarekin izandako harremanaren espedientea.

IV. IRITZIA

Udalaren erantzukizuna

Auditoria egin zaion entitateko idazkaritzak eta kontu-hartzaitzak bermatu behar dute aplikatu beharreko arauetara jarraituz egin direla espediente horiei dagozkien kudeaketa-jarduerak. Hala ere, aztertutako jardueran iruzurraren edo okerren ondorioz legeko ez-betetzerekin eta huts materialik ez egoteko beharrezkotzat jotzen den barne kontrolaren erantzulea da.

Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren jarduketan legezkotasunari buruz.

Horretarako, erantzukizun hori bete dugu kanpo kontroleko erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera, "Legea betetzeari buruzko fiskalizazioaren oinarritzko printzipioak" izeneko ISSAI-ES 400 araua, hain zuzen. Printzipio horiek exijitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta betearaztea egin ditzagula ere, arrazoizko segurtasun bat lortze aldera, finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatearen gainekoa.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplikatu ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko kudeaketan baliatutako prozedurei buruz, urteko kontuetan adierazitako informazioari buruz eta eragiketen legezkotasunari buruz.

Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela arriskuaren balorazioa, iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoriak barne kontrola hartzen du kontuan inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure iritzia funtsatzeko.

IV.1. MELIDAKO UDALAK LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Salbuespendun iritziaren oinarria

- Erabilera anitzeko eraikinaren obrak egin bitartean linea elektrikoa lurperatzeko obra osagarri bat egin da -36.151 euro, BEZa kanpo-, baina kasuko espedienteak ez da kontratuei buruzko araudiari jarraituz izapidetu.

Legezketasuna betetzeari buruzko iritzia

Gure iritziak, "Salbuespendun iritziaren oinarria" paragrafoan azaldutakoagatik ez bada, eta kontuan hartuta aztertutako lanaren norainokoa, auditoria egin zaien hiru espedienteak bat datoz, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatu beharreko arauekin.

V. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

Egindako lanaren ondorio nagusiak aurkezten ditugu atal honetan, baita antzeman diren balizko hutsuneak hobetzeko egokitzat jotzen ditugun gomendioak ere.

V.1. TERRITORIO VISIÓN PROGRAMA

LIFE+ Nature and Biodiversity europar ekimenean sartzten da Life+ Territorio Visión programa, helburu duena bisoi europarra (Mustela lutreola) leheneratzen laguntzea eta haren habitat potentziala hobetzea, iraungitzeko arriskuan dagoen espeziea baita. Horretarako, uholde-lautadak berreskuratu dira eta ur-masaren egoera ekologikoa hobetzeko lanean ari dira.

Nafarroako Gobernua (ingurumenaren gaineko eskumena harena da), Espainiako Gobernu Ingurumen Ministerioa eta Ebro ibaiaren Uraren Agintaritzak (haiena da urarekin lotutako auzien gaineko eskumena) elkarrekin lantzen ari dira, Gestión Ambiental de Navarra SA (GAN) eta estatuko sektore publikoko TRAGSA enpresa publikoen bidez, Life+ Territorio Visión programa. Helburua da Nafarroako eremu horretako –Aragoi eta Arga ibaietako behealdeko– ibai-habitata berreskuratzea. Tokiko agintariek ere –besteak beste, Melidako Udalak– babesten dute proiektua.

Melidari dagokionez, herri-lurretako 37.300 m² desafektatuz hasi zen “Sequeroko ibarbasoan eta San Miguel ibarbasoan ibai-espazioa leheneratzea eta bisoiaren habitata sortzea” proiektua, gero GAN enpresa publikoari erabilera-lagapena egiteko. Desafektazioa Nafarroako Gobernuaren 2013ko apirilaren 17ko Erabakiaren bidez onetsi zen.

Aldi berean, udalak eta GAN enpresak proiektua garatzeko akordioa sinatu zuten, zeinean onetsi baitzen lursailen erabilera-lagapena proiektuarekin lotutako lanak egin zitezkeen.

Akordio horretan, 20 urterako erabilera-lagapenaren baldintzak zehaztu ziren, eta guztira 20.027 euroko prezioa ezarri zen. Bestalde, konpentsazio bat adostu zen lagatako lurzati-tako makalak mozteagatik: 13.155 euro.

2013ko abuztuaren 1ean, udalak 33.182 euro kobratu eta kontabilizatu zituen adostutako erabilera-lagapenagatik eta lurzati horietako arboladia dela-eta ordaindutako kalte-ordainagatik.

Ez da jasota ageri lagatako lurzati-errentamentu-kontratua formalizatu izana, udalak eta GANek sinatutako akordioak kontratu hori espresuki aipatzen duen arren.

V.2. ERABILERA ANITZEKO ERAIKINAREN KONTRATUA.

2017ko abenduaren 27an, Udalaren Osoko Bilkurak Melidako erabilera anitzeko eraikinaren proiektua onetsi zuen, 659.711 euroko gastuarekin BEZa kanpo, eta kontratazio-espeditentia abiarazteko agindua eman zuen.

Obra 599.413 euroan esleitu zen (hau da, ehuneko bederatzi merkeago), eta exekuzio erreala 638.479 eurokoa izan da, BEZa kanpo bi kasuetan. Esleitutako zenbatekoarekiko ehuneko 6,52ko desbideratzea gertatu da.

Obraren lizitazioa, esleipena eta exekuzioa aztertu ditugu, eta ikusi dugu oro har kontratuei buruzko legediaren arabera izapidetu dela eta gastua behar bezala onetsi, justifikatu eta kontabilizatu dela. Dena den, honako akats hauek aipatu behar ditugu:

- Lizitazioaren balio zenbatetsian ez da espresuki jasotzen balizko aldaketen zenbatekoa, zeinak bai jasotzen baitira administrazio-klausula partikularren agirian.

- Esleipen-hartzaileak eskaintako exekuzio-epea bederatzi hilabete eta erdikoa zen; egiazko epea, berriz, ia hamahiru hilabetekoa izan zen. Espedientean ez dira kreditatu atzerapen horren arrazoiak; beraz, ezin izan da baloratu administrazio-klausula partikularren agirian aurreikusitako zigorrak ezartzerik zegoen ala ez.

- Geroago onetsi eta kontabilizatu da obraren esleipen-hartzaileak linea elektrikoa lurperatzeko obra dela-eta aurkeztutako faktura bat, 36.151 eurokoa, BEZa kanpo, obraren proiektuan jasota ez zegoena.

Obra nagusiaren obra osagarri bat da, guztira exekututakoaren ehuneko sei egiten duena eta Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legean ezarritakoaren arabera izapidetu behar zena.

V.3. DIARIO DE NAVARRA FUNDAZIOAREKIKO ERRONKA SOLIDARIOA HITZARMENA

Erronka Solidarioa izeneko ekimena Fundazioak eta La Caixa gizarte-ekintzak taxutu zuten, jarduera fisikoaren sustapenaren bidez gizarte-ekintzetarako funtsak biltzeko helburuarekin. Enpresak, herritarrak eta gizarte-erakundeak aktiboki engaiatzea bilatzen zuen Fundazioak sustatutako proiektuak, gizarte-xede baterako dohaintzak lortzeko xedez.

2016ko urrian, Melidako Udalak eta irabazi asmorik gabeko herriko zazpi elkartek ekimen horretan elkarrekin parte hartzea erabaki zuten; halatan, kasuko lankidetzak-hitzarmena sinatu zuten Fundazioarekin.

Udalen borondatezko ekarpenek tokiko kausa bat edo gizarte-kausa orokorrago bat aldezteko balio zezaketen. Melidan, Erronka Solidarioan parte hartu zuten zazpi elkarteei eman zitzaizkien Fundazioaren bidez lortutako funtsak eta udalak emandakoak.

2017aren amaiera aldean, Fundazioak 1.353 euroko ordainketa bat egin zion Udalari (enpresek eta herriko partikularrek Fundazioari dohaintzan emandako funtsak), eta Udalak, 2018an, 468 euro eman zizkion zazpi elkarte horietako bakoitzari (guztira, 3.274 euro). Udalaren kargurako gastua 1.291 eurokoa izan da beraz, eta elkarteekiko kasuan kasuko hitzarmenen bidez gauzatu zen.

Udalaren kontu-hartzaileak eragozpen-ohar bat egin zuen elkarteei egindako ordainketa horiek direla-eta, eta alkateak eragozpen hori altxatzea eta zenbateko horiek ordaintzea erabaki zuen.

Alegia, jasota ageri bada ere tokiko elkarteek erronka solidarioaren gizarte-ekimenean parte hartu zutela, justifikazioa osatzeke legoke, kasuko hitzarmenetan ezarritakoarekin bat.

Gure gomendioak:

- Life+ Territorio Visión proiektua garatzeko akordioan aipatzen den errentamendu-kontratua formalizatzea.
- Obra-kontratuetan gertatu den atzerapenaren arrazoiak kreditatzea eta kasuko zigorrak ezartzea, baldin eta atzerapena kontratistari egozteko modukoa bada.
- Kontratu Publikoari buruzko Foru Legean jasotzen den prozedura izapidetzea, baldin eta obra nagusiaren obra osagarri bat egiten bada.
- Elkarteekiko hitzarmenetan ezarritakoarekin bat osatzea justifikazioa.

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, Edurne Martinikoren Matxain auditoreak proposatuta eman da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2021eko martxoaren 23an

Lehendakaria,
Asunción Olaechea Estanga

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

José María Sesma Aznárez jauna, 2019ko hauteskundeak arte Melidako Udaleko alkatea izan nintzen aldetik (jakinarazpenetarako helbidea udalean bertan dut), Kontuen Ganberaren aurrean agertu eta, zuzenbidean egokien den moduan,

AZALTZEN DUT:

Melidako Udalaren Territorio Visón programari, erabilera anitzeko eraikinaren kontratuari eta Erronka Solidarioa hitzarmenari buruzko behin-behineko fiskalizazio-txostena jaso dut.

Behin-behineko txostenean emandako epearen barruan eta idazki honen bidez, ondotik heldu diren alegazioak aurkeztu ditut, aintzat har daitezten eta behin betiko txostenean jaso daitezten:

Ezer baino lehen argitu nahiko nuke txostenean aztertzen diren espedienteak orain dela zenbait urte izapidetu zirela eta une honetan ez daukadala horiek kontsultatzeko aukerarik, orain ez bainaiz Melidako alkatea. Hortaz, hori kontuan har dadila eskatzen dut, baldin eta nire alegazioetan zehaztugabetasunik badago.

1. alegazioa: "Salbuespandun iritziaren oinarria" apartatuari dagokionez, une hartan idazkari-tzan zegoen pertsonarekin hitz egin ondoren, honako hau adierazi nahiko nuke: "linea elektrikoaren lurperatzea ezin da obra osagarri gisa hartu, ez baita hasierako kontratua exekutatzeko beharrezkoa (6/2006 Foru Legeko 73.2.a artikulua). 73.2.c apartatua aplikatu behar da zuzenean, 105.4.b apartatuan oinarritua, aprobetxamendu independenterako modukoa baita. Hortaz, ez denez 30.000 eurotik goitikoa (BEZa kanpo), kreditu-erreserba betetzen denez eta faktura aurkeztu denez, posible da egindako izapidetzearen arabera egitea lurperatzea".

2. alegazioa: V.1 apartatuari dagokionez (Territorio Visón programa) alegatzen dut alkate nintzen aldetik sinatzen nituela idazkariaren esanetan zuzenbidearen arabekoak ziren dokumentuak. Espedienteen alderdi juridikoen izapidetze zehatzaren berri ez nuen. Errentamendu-kontratua formalizatu ez izana administrazio-kudeaketan izandako akats bati zor zaiola esanen nuke.

Garaiz eta behar bezala aurkeztu denez, alegazio-idazki hau izapidetzeko onar dadila eta, edukiari erreparatuta, txostena alegazioetan adieraziaren arabera alda dadila.

Melidan, 2021eko martxoaren 17an.

Melidako alkate ohia: José María Sesma Aznárez

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA

Melidako Udaleko alkate ohiak aurkeztutako alegazioak aztertuta, txostenean erantsi ditugu, uste baitugu ez diotela haren edukiari eragiten, eta txostena behin betikotzat jo dugu.

Iruñean, 2021eko martxoaren 23an

Lehendakaria,

Asunción Olaechea Estanga

